

Maiako en Zauriak

Ikaslea: A. O.
2002-2003

Malkeentzauriak

Bizitzan, zoritxarrez, gauzak ez dira beti nahi bezala gertatzen; edo hobe esanda, badaude momentu batzuk, ezer onik ere ez dauzkatenak. Ingurukoa gaizki dabilenean, eta azkenean, buruan daukazun metak lortzeko ere oztopoak baino agertzen ez zaizkizunean, bizitzen jarraitzeko gogoak ere alde batera geratzen zaizkizu. Eta askori momentu hau beldurgarria irudituko bazaie ere, orduan hasten da biderik zailena.

Gizakiok daukagun gauza honenetariko bat da etorkizunaz momentu oro kezkatzen gabiltzala. Dena gaizki badoakizu ere, etorkizunean gauzak konponduko direla badakizu, eta horrek aurrera jarraitzen laguntzen zaitu; baina benetakoa ez den mundu batean murgildurik. Esna zabiltzala, ametsetan baino ez zaude; desio dituzun gauzez pentsatzen, izugarritzko ilusioa egingo lizkizuketen gauzak gertatuko direla pentsatzen... Baina txarrena gauza hauek suertatzen ez direnean dator.

Hasiera batean izugarritzko beherakada dakarkizu horrek: lagunak ere ez dira gertatzen zaizunaz ohartzen, egunero klaseko bidean norbaitek galdetuko dizulakoan zauden arren; pasadan egunean egin zenuen azterketa ez zaizu uste bezain ondo atera, benetan nola egin zenuen ere gogoratzen ez duzun arren, beste gauza batzuei bueltaka baitzeuden momentu hartan, nota ona ateratzeko ilusioa zeneukan, eta kide edo irakasleek "Zer gertatu zitzaizun, ba?" galdetzean, sorbaldak gora igo eta "Ez dakit" aurpegia jartzea baino ez duzu, benetan hala baita, ez baitakizu zer gertatzen zaizun.

Baina nola kontatu gurasoei, arratsalde osoa gelan pasatu bazenuen ere, ez duzula batere nota onik atera azterketan? Nola azaldu liburua irekita bazegoen ere, ez dakizula ezta zein orrialdetan zenbiltzan, bi ordu geroago klase partikularretara joateko bidea itxaroten baitzenbiltzan, lau pareta zuri haietatik ihes egiteko gogoz? Azken hauek ere, egunero ikusten zaituzten arren, ez baitira gertatzen zaizunaz ohartu; momentuan gehien preziatzen duzun hori, zerbait gertatu zaizula konturatu dena, eta berarekin zabiltzanean irribarreak ateratzea baino nahi ez duen hori: zure lagunik onena, horixe baita... daukazun bakarra. Honek telefonoz ere ahots isil hori nabarmentzen du, eta batzuetan, badirudi, momentu oro ikusten zaituela, gauetan lo geratu aurretik, egun osoan gordetzen ari zenituen malko horiek askatzen dituzunean... "Pi-pi...pi-pi"; "Mezu berria" dio zure mobilak. Euskalteleko propaganda edo, are txarrago, saldorik ez daukazula esango dizun mezua izango dela zabiltza, momentu horretan, egunean gertatu zaizkizun gauza guztien ostean, ez baituzu ezer onik espero. Baina oker zeunden "Gabon wapisim! Oso ond loein dzazun spro dt, muxu andi asko geien mresi dituen prtson orrntzat!! ;-P *MUAk*" dioen zure laguntxo horren mezua da! Badago. Ez duzu negar gehiagorik egingo, gaua lasai pasatuko duzu.

Baina berau ere iruzurtzen duzu gehienetan, gertatzen zaizunaz sufritzea ez duela merezi uste baituzu. Eta orduan, bera gertatzen ari denaz konturatzean, haserretu egiten da, eta arrazoa dauka gainera! Baina bere haserrean ondorioz, zure pena handitu egiten da. Nola izan liteke gehien miresten duzun horri min egiten ibiltzea?! Zeure burua mundu osoko pertsona txarrena dela badakizu, baina... zuk ez dituzu gauzak asmo txarrez egiten, nahi gabe gertatu egiten baitira; momentu hauetan zure burua beste planeta batean murgildurik dagoenez, ez baitzara zure ekintzen sortzailea ere.

Gauzak ezin dute dauden moduan jarraitu. Aldaketak gertatu behar dira. Baina nola??? Ez dakizu nondik hasi ere!!

Eta orduan laguntza bila hasten zara. Hurbileneko familiari gertatzen zaizuna erakusteko asmotan, negar egiteko gogo horiek etxean gehiagotan ez dituzula gordeko erabakitzen duzu. Baina honek gauzak okertu baina ez ditu egiten.

Zure egoera txarrak gurasoak kezkatzen ditu, eta laguntzeko asmotan zure buruan daukazu dena okertzea baino ez dute lortzen. Eta orduan, beste aukerarik ez duzenez, bakean utziko zenuen lagun hori deitzen duzu.

Egun batzuetan laguntza eskaintzen dizu. Baina zuk ez dituzu gauzak behar bezala egiten. Dena aldrebesten duzu, bere errua izango balitz bezala, arazoren bat duzunean, berarekin ordaintzen duzu dena. Eta zeu ere konturatzen zara, egunen baten agur esango dizula, eta nahita ez bada ere, ez duzu hau gerta ez dadin ezer egiten. Azkenik, gauzak txarrago jar ez daitezen, lagun hori bakean uztea erabakitzen duzu berriro, eta orduan bakarrik geratzen zara, gauen zure alboan lo egiten duen pelutxezko txakurtxo hori da zure malkoak ezagutzen dituen bakarra, baina honek ez ditu entzun beharreko hitz haiek esango.

Bakardade triste honek etxean negar egiteko beldurra dakarkizu. Baina malkoak ezin dira egun askoz barnean geratu.

Ondorioz, kalera zoaz, etxe alboan dagoen parke bakarti horretara, gauak soilik laguntasuna egiten dizunean. Honek ez dizu azalpenik eskatuko, zuk ezin izango diozu minik egin...

Hasiera batean norbait pasatzearen beldur, negarra barnean eusten duzu. Baina lehenengo zigarroa piztean, gertatzen ari zaizunaz konturatzean, malkoak bere bidea zure baimenik gabe hasten du.

Begiak lainotu egiten zaizkizu, negar-tantak aurpegitik behera doaz eta zure burua ikusten duzu malko haien barnean. Kokotsera heltzean beherantz zoazela konturatzean, malkoak sikatzen dituzu. Baina eskuak guztiz bustirik dituzunean ez duzu malko gehiagorik sikatzen eta azkenean tanta hori irrist eginez lurrerantz doa; zu honen barruan zoazela eta pixkanaka-pixkanaka, lurra geroz eta hurbilago ikusten duzu. Azkenik harri gogorrarekin talka egiten duzu.

Malkoari begira geratzen zara, bertan zeure buru zauritua ikusten baituzu eta laguntza eman nahi diozun arren, ez duzu zer eginik. Honek dakarkizun haserrearen ondorioz zigarro amaitua bertara botatzen duzu, honek negarra lehor dezan eta gero, zapaldu ondoren, sikatu egin dela ziurtatzen zara.

Lurrean ez dago tanta gehiagorik, baina zure bihotzean ez da malko hori inoiz lehortuko.

Irteeratxo hau jarraikiagoa bihurtzen da, azkenean egunero iluntzero bertara hurbiltzen zara etxean edozein eskusa ergel jarritz. Negar-malkoak pilatuz doaz zure bihotzean, eta batean zure bihotz zauritu horrek eztanda egingo duelakoan bazauden ere, ez daukazu ezer egiterik. Ez duzu inorengana joateko aukerarik, lagun preziatu horrek egunero dei egiten dizun arren, egunero "Zer moduz?" galdetzen dizun arren eta ahal bezain beste zurekin geratzen den arren; ez baitzikiozu zure kontuak inori azaltzeko indarririk.

Batzuetan, galderak bata bestearen ostean irteten zaizkionez bere ahotik eta, beste batzuetan, egindakoaz damaturik zaudenez, barkamena eskatzen diozu, askotan negar-malkoek lagunduta doazen hitz isil eta lotsatiez. Baina ez diozu inoiz benetako barkamenik eskatu, esan nahi duzuna buruan hitzez hitz daukazu arren, inoiz ez baitira

hitz hauek zure ezpainen artean irteteko kapaz izan, erantzunaren beldur edota gaizki ulertuak izatearen beldur.

Hala ere kide preziatu honek ez dizu inoiz bizkarra erakutsi, beste guztiek egin duten moduan. Askotan sorbaldan golpe pare bat eman eta arratsalde baten zigarrotxo erretzera lagundu zaituenik izan duzu, baina ka-su honetan ez duzu malkoak askatzeko aukerarik izan, ondorioz laguntza askorik izan duzunik ezin da esan.

Baduzu ere asteburutan zurekin dabilen haietarik bi edo, penak hiltzeko asmotan, mozkorturik bukatu duzun larunbat horretan, aurpegitik pena ezabatzeko indarrak ere izan ez duzun momentu horretan gertatzen zaizunaz konturatu diren horiek, baina negar egiteko sorbalda utzi badizute ere, ez dute beranduago galderik egin, eta zu ez zaude laguntzarik eskatzeko moduan.

Honetaz, guztiaz, konturatzea ez da hain erraza eta ondorioz benetan alboan duzun hori nor den jakitea ere zaila egiten zaizu, azkenean betiko berberarengana joko baituzu beti.

Eta argi dago, hau izango da benetan lagunduko zaituen bakarra.

Hurrengo egunean zigarrotxo eta malko horiek bakardadean joango ez direla erabakitzen duzu, eta zure kide maitagarri hori dei egiten duzu. Berak pozik onartzen du zure eskaintza, baina berak ez dakiena da dena kontatzeko asmotan zabiltzala. Lagun hau psikologoa ez bada ere, beste inork ez bezala lagunduko zaitu.

Eta hala gertatzen da.

Hurrengo egunean arratsaldeko zazpi eta erdietan etxe aurrean duzu kotxean, nora joan nahi duzun galdetzeko asmoekin. Zuk jende askorik ez dagoen lekuren batera joateko gogoz zaudela esan, eta zure esanak betebehartzat hartzen ditu.

Azkorri aldera zoazte, bertan ez baita jende askorik egoten. Heldu bezain pronto kotxea itzali eta atea irekitzen du. Zuk barruan geratzeko eskatzen diozu, eta berak ezer ulertzen ez badu ere, atea itxi eta zure hitzen zain geratzen da. Ez daukazu nondik hasi, eta zigarro bat pizten duzu, denbora egiteko asmoz.

Beherantz begira geratzen zara, negar egiteko gogoen ondorioz, distiratsu dauden zure begiek errebelatu ez zaitzaten. Baina bera ez da ergela, eta kokotsetik hartuz, zure begiak ikusten ditu. Bere begiek islatzen duten arduraren ondorioz negarrez hasten zara, baina oraingoan ez da azken malko hori lurrera eroriko, berak bere eskua eskainiko baitizu zuk sikatu ezin duzun azken hori lehertzeko.

Ordu laurden pasatu da jadanik eta ez duzue hitzik ere esan, ez bata ezta besteak ere. Biak besarkaturik, erlojuaren orratzek aurrera egiten dutela, isilik; inork ez baitauka presarik ezta hitz egiteko beharrik ere, isiltasunak eta bestearen begiradak jakin beharreko guztia eskaintzen baitu, baita duela nahiko zure ezpainen artean ezkutaturik, irteteko nahian zegoen "bar-katu" hori ere.

Lasaitzea lortzen duzunean, bere besoak utzi eta barkamen hitz horiek esan eta azalpenak eramatera zoazenean, "sssscccchhhhh" esan eta berriro besarkatzen zaitu berriro, berriro negar egitera zoazela dakielako eta "Ez duzu ezer esan behar, badakit esan behar didazuna zer den. Egon zaitez lasai, maitia".

Ez duzu berriro bakardadean negar egingo, zuregana etortzeko aukerarik izan ezean, telefonoz ere entzungo baitzaitu, negar egitean sortzen diren zarata itsusiak izanda ere sortzeko kapaz zaren bakarra bada ere.